



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta dalekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
a0144708b02c14104c307ea10b030a0ff

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

Zerbitzuaren proposamena.

Prozedura: Dirulaguntzen deialdia eta emakida.

Gaia: Nekazal ustiakuntzak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak 2026.

Dokumentua nork sinatzen duen: Idazkariak.

ZERBITZUAREN PROPOSAMENA

Udal honen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan, dirulaguntza eta laguntza hauek ematea aurreikusten da:

DIRULAGUNTZAREN DATUAK	Nekazal ustiakuntzak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak.
Gaia	Hirigintza
Eremua	Udalerrikoa
Erakunde deitzailea	Alkate-Udalburuak
Onuradunak	Udalerrri mailan gauzatzen diren nekazal eta abeltzain ustiakuntzen hobekuntzak eta eraikin berriak, halaber nekazal eta abeltzain ustiakuntzen jabeen ohiko etxebizitzaren eraikitzea.
Xedea	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan hobekuntzak edo eraikin berria egiteko obrak diruz lagundu daitezke, udalerrian bertan eginez gero, bai eta ohiko etxebizitzaren eraikuntza ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan titularrena baldin bada.
BDNS Kodea	
Aurrekontu partidaren zenbatekoa	5.000,00 € (412.770.000)

Udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hasiera batean onartu zuen udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza, eta behin betiko onartu zen iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean, 2013ko ekainaren 21ean.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikularekin bat etorritz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 58. artikularekin bat etorritz, zerbitzu honek proposatzen du aipatutako dirulaguntza emateko deialdia onartzeko izapideei ekitea.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

NEKAZAL USTIAKUNTZAK 2026